AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

830

91/2012 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearena, Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko Jon Guajardo Remacha jauna izendatzeko dena.

Aztertu dugu Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko Erizaintzako zuzendariorde mediko lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentearen 2011ko urriaren 11ko 1016 Ebazpenaren bidez egin zen, eta 2011ko abenduaren 7ko EHAAn argitaratu (231. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagaiek aurkeztu dituzten eskabideak eta agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera balioetsi ere.

Aurkeztutako agiriak azterturik, ikusi da Jon Guajardo Remacha jauna deialdiko lanposturako aproposa dela, baita trebakuntza egokia duela ere hartan jarduteko.

Hori dela eta, Kudeaketa Zuzendaritza honek hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Jon Guajardo Remacha jauna Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendariorde mediko izendatzea.

Bigarrena.– Izendapenak 2012ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2012ko urtarrilaren 20a.

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko zuzendari gerentea,
JOSEBA JULEN BALLESTERO ZÁRRAGA.